

FUNTSEZKO JARDUERAK

Guretzat funtsezkoa da bezeroarekin eta hornitzailearekin harreman onak edukitzea. Gure negozioa ondo funtziona dezan, hornitzailearekin konfidantza eduki behar dugu eta lortu nahi duguna da biok ados gauden prezio batera iristea, non berak dirua irabazten duen guri produktu hau saltzen, baina guk ahalik eta benefizio gehien lortzea ere, horrela gure produktua ez garestitzeko. Bezeroak partikularrak eta dendariak dira. Dendariak produktua kantitate handitan erosten dituztenez, prezioak merketu egiten zaizkie eta denda horiekin publizitatea egiten dugu, baita ere, eta akordio batera iritsi ondoren gure produktuen sorta bat oparotzen dugu. Bezero partikularrei ordea, internet bidez saltzen diegu. Bezero txartelak eskuratu ditzakete non puntuen bidez opariak eta deskontuak dakartzate. Produktu batek fabrikazio arazorenbat badauka, berri bat emango zaio eta hurrengo erosketan %50eko deskontua jasoko du. Espainian saltzeekotan produktuak, 24-48 ordu iraungo du produktuak iristen eta beste herrialdeetara bidaltzen direnenan produktuak, ahalik eta azkarren bidaliko da.